

Noiz arte honela?

«Kilometroak 78» Zubietan eta «Ikastolen Ibilaldia» Erandion berrikitan ospatu dira, egun berean biak, urriaren 2an.

Hor ere ikusi da. Harritzekoa da gure herriaren mobilizazio-ahaltasuna, dinamika, iniziatiba. Zenbat jende antolatzeko, zenbat jende parte-hartuz! Ekintza bakoitzean inguru osoa mobilizatzen da hemen: enpresak, artistak, idazleak, intelektualak, kantariak, bertsolariak, deportistak, elkarteak, herri osoa. Gogo onez parte-hartzen du jendeak, eta gogo onez dirua ematen ere...

Baina jendea nekatzen hasia dago. Izerdi gehiegi eman du herriak, dirua parra parra eman du. Eta bitartean, aginte publikoa non dago? Berari dagokio eginkizun hauetako asko eta asko finantziaztea, eta ez zuzenki herriari, honek hari horretarako eman bait dio aurretik dirua.

Gure herri-bizitza sanotuz badoa, gero eta bakanago gertatu behar ko dute helburu hauekin egindako ekintza-mota hauek, noski. Aginte publikoari bere erresponsabilitatea, bere erantzukizuna bete dezala esijitu behar zaio lehendabizi, eta gero herriari dirua eskatu.

Ez gaitzen «populismoan» eror, ez diezaiogun erraztasunari amore eman. Aginte publikoari zor diguna eskatzean eta agintea eskuratzean datza gure burruka larria. ■ *Joan Altzibar.*